



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EUSKADIKO HIRIGINTZA ETA  
ETXEBIZITZA FOROA

“Industrializazioa eraikuntza  
sektorearen modernizazio ardatz gisa”  
Lan Taldea

# GOMENDIO TXOSTENA

Uztaila 2025



## TESTUINGURUA:

2022-2036 Etxebizitza Itun Sozialak, etxebizitzarako eskubidea eskubide eraginkor gisa bizkortzea du helburu. Etxebizitza duin eta arrazoizko prezioko bat eskuratzea giza garapen jasangarriaren funtsezko elementuetako bat da, zeinarekin erabat konprometituta baitago Euskadi. Horretarako, ezinbestekoa da etxebizitza-politika adostua, koherentea eta epe luzerakoa izatea, gure gizarte-ereduaren euskarri gisa ikusiko dena.

Helburu nagusi hori 4 xede kuantitatibotan zehazten da, eta xede horiek bideratuko dituzte Itunaren babespean garatzen diren jarduerak:

- Arrazoizko prezioko alokairuen eskaintza publikoa handitzea.
- Babes publiko iraunkorreko etxebizitza parkea handitzea.
- Eraikin birgaikuntza tasa handitzea.
- Talde kaudimenduei etxebizitza libreen eskaintza ahalbidetzea, obra berriak zein birgaitze-prozesuak egin ondoren ateratzen diren etxebizitza berriak, sustatuz.

Ituna, 2022-2036 aldian garatu beharreko lehentasuneko 6 jarduera-ildoren inguruan egituratzen da. Ildo horietatik 4 eragin zuzeneko ildoak dira, eta 2 zeharkakoak, etxebizitzaren inguruko politiken, programen eta zerbitzuen gobernantza berria bideratutako euskarri-lerroak.

4. lerroa "eraikuntza-sektore erakargarri, lehiakor eta berritzaile bat eratzeari" egiten dio erreferentzia. Horretarako, lehentasuneko ildo estrategiko hauek definitzen ditu:

4.1.- Sektorean berrikuntza sustatzea eta babestea, batez ere enpresa txikiagoetan, berrikuntza zentzurik zabalenean ulertuta produktu eta zerbitzuei, prozesuei, merkaturatzeari eta kudeaketari dagokienez. Horrek esan nahi du unibertsitate-mailako eta lanbide-heziketako teknologia-zentroekiko eta hezkuntza-sistemarekiko lankidetzaren areagotu behar dela, eta eraikuntzaren klusterra baliatu behar dela elkargune izateko eta enpresen arteko lankidetzaren dinamikak bultzatzeko. Sektorearen industrializazioan eragin espezifikoa izatea.

4.2.- Sektorean talentuaren gaikuntza eta garapena sustatzea eta babestea, bai talentura sartzeko hasierako gaikuntzari dagokienez, bai lanbide-esperientzia duten pertsonen birkualifikazioari dagokienez, eraikuntza-, antolaketa- eta kudeaketa-teknika modernoak eskura izan ditzaten.

4.3.- Sektorea erakargarriagoa egiten laguntzea, laneratzeko eta garapen profesionalerako bide gisa, batez ere emakumeen kasuan, sektore berdinizaleagoa eratzea lortzeko.

Eraikuntza industrializatuaren arloan, Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailak "2022-2036 Etxebizitzaren aldeko Itun Sozialeko industrializazio-estrategiaren" ziriborro-dokumentu bat dauka, baita "Gizarte-laguntzako Etxebizitza industrializatuaren Liburu Zuria".

Itunaz gain, 2025-2027 aldirako Etxebizitza Gida Plan berriak "Eraikuntzaren sektorea eta enpleguaren kalitatea indartzea" 4.2 estrategia jasotzen du, eta, zehazki "Enpresa-ehuna eta balio erantsia sortzeko potentziala indartzea" 4.2.1. ildo estrategikoa.

2030 Euskadiko Industria Plana, 3 ardatz eta 15 esparruren inguruan egituratzen da. Zabalduko estrategia honetan, proiektu eraldatzaileen tresnak, funtsezko papera hartzen dute jarduera-sektoreen garapenean. Eraikuntza industrializatuak, eraldatzeko eta balioa sortzeko potentzial handia duen sektore emergente gisa, plan horretan definitutako proiektu eraldatzaileei heldu behar die. Proiektu horiek sektorearen behin betiko bultzada erraztu dezaketen palanka estrategiko moduan jarduten dute, eta aukera ematen diote egiturazko oztopoak gainditzeko, haren ekoizpen-ahalmena igotzeko eta euskal ekosistema industrialaren barruan ardatz traktore gisa sendotzeko.

Era berean, 2025eko maiatzaren 6an, espainiako gobernuak Etxebizitzaren Industrializazioa Berreskuratzeko eta Eraldatzeko Proiektu Estrategikoa (PERTE) onartu du. Proiektu horrek 10 urtean zehar 1.300 milioi euroko inbertsio publikoa izango du, urtean 15.000 etxebizitza industrializatu eta hamar urtean 20.000 etxebizitza ekoizteko erritmoa finkatzeko.

Testuinguruak sektorearen berariazko lana eskatzen du. Hori dela eta, Foroaren Osoko Bilkurak, 2025eko otsailaren 25ean, gai horretan sakontzeko lantalde bat sortzea erabaki zuen, Euskadin bizitegi-eraikuntzaren industrializazioa bizkortzeko neurriak zehazteko helburuarekin, "2022-2036 aldirako Etxebizitzaren aldeko Itun Sozialeko industrializazio-estrategiaren" dokumentu ziriborroan oinarrituta.

Industrializazioa eraikuntza-sektorea modernizatzeko bektore gisa 3. Lan taldea, 81 pertsonak osatu dute, dokumentu honen 2. eranskinean zehazten direnak.

## GOMENDIOAK

Bileren eta galdera-sorten bidez egindako lanaren ondorio gisa (ikus 2. eranskina), lantalde honek Foroari honako gomendio hauek helaraztea proposatzen du:

### **1.- Eraikuntza industrializatuaren sektorea garatzeko, erakundeen laguntza eta akonpainamendua bultzatzea.**

Eraikuntzaren industrializazioak, zalantzarik gabe, aukera ekonomiko eta enplegu kualifikatua sortzeko aukera ematen du, baita epe laburragoko eraikuntza-proiektuak garatzeko bultzada. Beraz, balio handiko elementua da etxebizitza eskuragarrien problematikari eman behar zaion erantzun orokorrean.

Enpresek lan egiten duten merkatu geografiko naturalak zabaltzea ere badakar, eta, beraz, lehia handiagoa. Hori dela eta, eraikuntza industrializatuaren sektorea garatzearen alde egiteak aukera eman diezaike enpresa horiei merkatu berrietan sartzeko eta merkatu horiek gehiago hazteko eta garatzeko.

Eraikuntza industrializatuaren sektorea eraikuntza-eredu tradizionalen alternatiba erreal eta eraginkor bezala garatu eta sendotu ahal izateko, hazkundera erraztuko duten laguntza-neurrien multzo bat martxan jarri behar dira. Neurri horiek ezaugarri hauek izan behar dituzte:

- Erakundeen laguntza egonkorra ezartzea, aldizkako ebaluazioei lotuta, pizgarriak eraginaren arabera doitzeko.
- Babes integrala artikulatzea, elkarren artean lerrotutako laguntza-lerroekin.
- Produktu berritzaile eta bereizgarrien garapena sustatzea.
- Etxebizitza-sustapen publikoaren bultzatzailea aktibatzea.
- Benetako proiektu pilotuak garatzen laguntzea.
- Iraunkortasunaren dimentsioak garatutako ekintzetan zeharkako presentzia hartzen duela ziurtatzea.

Akonpainamendu horrek, hurrengo laguntzak eduki beharko ditu:

**1.1.- Eraikuntza industrializatuaren sektorea garatzeko ekonomia- eta finantza-laguntza espezifikoaren esparru integral bat ezartzea.** Laguntza horrek kontuan hartu behar ditu bai gaitasunen hazkundera, bai sartzeko oztopo eta arriskuen murrizketa, enpresen garapena eskalatzeko giro egokia sustatuz eta epe ertain eta luzean eskari nahikoa sortzeko. Horretarako, laguntza-neurri hauek garatu beharko dira:

1.1.1.- Inbertsio produktiboa eta teknologikoa, aktibo finkoetan inbertitzea errazten duten itzuli beharrik gabeko dirulaguntzen bidez.

1.1.2.- Kapitalean aldi baterako programetarako sarbidea, enpresen eskalatzea errazteko.

1.1.3.- Aurrerakin itzulgarrien programak, bereziki proiektu pilotuak garatzeko.

1.1.4.- Egokitasun teknikoko ziurtagiriak eta produktuaren ingurumen-adierazpenak lortzeko dirulaguntzak.

1.1.5.- Industrializazioaren aldeko apustua egiten duten ETEentzako abal publikoen programak.

1.1.6.- Eredu industrializatuaren arrisku espezifikoetara egokitutako aseguramendu-produktuak.

1.1.7.- Finantza-erakundeek eskaerak finantzatzea ahalbidetzen duten programak.

**1.2.- Sektorearen garapenari laguntza pizgarri fiskal eta erregulatzaileen bidez.** Laguntza horrek honako neurri hauek jaso beharko ditu:

1.2.1.- Eraikuntza industrializatua zerga-arintzerako eskubidea duten teknologia garbien katalogoan sartzea.

1.2.2.- Eraikuntza-prozesu industrializatuak hartzen dituzten enpresentzako pizgarri fiskal espezifikoak.

1.2.3.- Ekoizpen-erlaketako inbertsioari lotutako hobari fiskalak.

1.2.4.- Eraikuntza industrializatua Euskadiko Industria Planaren proiektu eraldatzaileetan eta industria-garapenarekin lotutako beste plan publiko batzuetan sartzea.

**1.3.- Kontratazio publikoa palanka estratejiko gisa erabiltzea, eraikuntza industrializatuaren sektorearen garapena eta ezarpena bizkortzeko.** Horretarako, lizitazio publikoen kopuru nahikoa jarri beharko da martxan (bizitegi-sektorean, baina baita ekipamendu-sektoreetan ere, hala nola hezkuntza- eta osasun-sektorean), eta horietan proiektuaren industrializazio-maila jakin bat eskatu edo baloratu beharko da. Prozesu industrializatuaren integritatearen tresnen erabilera ere (adibidez, BIM metodologia) beste baldintza bat izan daiteke, bai obra berriko edota birgaitze-proiektuetan, eskaeren egonkortasuna bermatzeko, eta, beraz,

eraikitzeke modu berri horiei ekiteko inbertsioak egin dituzten eraikuntza industrializatuko enpresa-eskalagarritasuna eta bideragarritasuna bermatzeko helburuarekin.

## **2. Prestakuntza arin eta malgua bultzatzea, sektorearen industrializazioari eta eskumen-igoerari egokituia:**

Bizitegi-eraikuntzaren industrializazioak berekin dakartzan jardueren eraldaketa garrantzitsua dakar, eta, beraz, eragin handia du bizi-zikloan zehar esku hartzen duten profil profesionalak eraldatzeari dagokionez.

Prestakuntzaren esparruan, errealitate horretatik prestakuntza-prozesuak egokitzeko beharra ondorioztatzen da, bai sektorean sartuko diren pertsonen dagokienez (hasierako prestakuntza), bai eraikuntza tradizionalan lan egiten duten pertsonen gaitasunen birkualifikazioari eta egokitzapenari dagokienez.

Prozesu horrek berekin ekarriko du, eraikuntza industrializatuak eraikuntza tradizionalaren aldean gero eta pisu handiagoa hartzen duen heinean, eskatzen diren gaitasunen maila orokorra nabarmen igotzea. Eta hori bereziki beharrezkoa da zahartutako eta, oro har, prestakuntza-maila txikia duen sektore batean (eraikuntza tradizionala). Prestakuntzaren arloan berritzea aukera argia izan daiteke sektoreko kompetentzien etengabeko eguneratzea txertatzeko, enpresen lehiakortasunerako elementu estrategiko bihurtuz.

Aldi berean, birkualifikazio-prozesu hori aukera bat da pertsona berriak hurbiltzeko profesionalen defizit handia duen eta erakargarriagoa egin behar den sektore batera. Era berean, sektorean emakume gehiago sartzeko lanpostu guztietan, eta, bereziki, kualifikazio handiagoa eskatzen dutenetan.

Horretarako hurrengo lerroak landu behar dira:

### **2.1.- Eraikuntzaren industrializazioa bizitegi-eraikuntza industrializatuaren (arkitektura eta ingeniariak, goimailakoak zein teknikoak) diseinatzaile, preskriptore eta koordinatzaile gisa jarduten duten profil profesionalen prestakuntza-curriculumetan sartzea, bai hasierako prestakuntzan (graduak), bai espezializazioan (graduondokoak eta espezializazioko beste prestakuntza bat).**

Prestakuntza horrek ezaugarri hauek izan beharko lituzke:

2.1.1.- Dagoeneko sektorean lan egiten duten pertsonentzako prestakuntzaren kasuan, profil horien beharrei erantzuneko dieten ad hoc prestakuntza-ibilbideen aldeko apustua egin behar da. Ibilbide horiek funtsean modularrak izan behar dute, formatu malguak eta arinak txertatuz, hala nola prestakuntza-pilulak, mikro-kredentzialak eta abar.

2.1.2.- Irtenbide zehatzak ezagutzea, profesional horiek eraikuntza industrializatuaren txertatzearen onurak eta konponbide horiek eraikuntza-prozesuan dituzten inplikazioak identifikatu ahal izateko. Horretarako, sektoreko enpresak inplikatu beharko dira.

### **2.2.- Batez ere izaera industrialeko (adibidez: mekatronikoa, robotikoa...) eta iraunkortasunaren eremuko lanbide-heziketako espezialitateetako profesionalak izatea.**

Prestakuntza horiek, gaur egun, irtenbide profesional bikainak dituzte, eta, beraz, 2 ildo osagarri landu beharko dira:

2.2.1.- Prestakuntza mota horien egungo eskaintza handitzea, prestakuntza-curriculumetan gehiago sartuz (eta, bereziki, prestakuntza dualak eskaintzen dituen aukerak aprobetxatuz) eraikuntza industrializatuarekin lotutako jarduerak. Era berean, eraikuntza industrializatuarekin lotutakoa sar liteke prestakuntza hori aurkezteko jardueretan eta haren irteera profesionalean.

Eremu horretan, bereziki azpimarratu beharko da eraikuntza tradizionalako eta eraikuntza industrializatuko jarduerak lotzen dituzten gaitasunei buruzko prestakuntza, eta arreta berezia jarri beharko da elementu industrializatuak in situ muntatzeko lanetan. Prestakuntza horrek ikaskuntza teknikitik harago joan beharko du, eta bermatu beharko du – batez ere oinarriko mailetan – eraikuntza-sistemaren barruan elementu bakoitzaren helburu funtzionala ulertzen dela, eta horrek multzoaren kalitatean, zehaztasunean eta eraginkortasunean duen eragina. Horrela, bermatzen da tokian bertan lan egiten duten profil operatiboek prozesu globalaren barruan duten rola garrantzia ulertzea eta eraikuntza industrializatuaren printzipioekin bat etorri lan egitea.

2.2.2.- Eraikuntza industrializatuko berariazko lanbide-heziketaren eskaintza abian jartzea, Eraikuntza eta Obra Zibila lanbide-arloaren barruan.

**2.3.- Eraikuntzari lotutako prestakuntza tradizionalaren dimentsio industrialia gehiago txertatzea.** Horretarako, prestakuntza hori eskaintzen duten prestakuntza-zentroei laguntza eman beharko zaie, beren langileen inbertsioak eta birkualifikazioak egin ditzaten, eta, aldi berean, eraikuntza industrializatuko eragilean artean aparte lankidetzak ezarri beharko dira. Hori guztia modu koordinatuan egin behar da, eraldaketa horren eraginkortasuna eta efizientzia ziurtatzeko, bikoiztutako eskaintzak eta inbertsioak saihestuz.

**2.4.- Prestakuntzaren edukiak urtero berrikustea, sektorea garatzen ari den bilakaera bizkorrari erantzuteko, prestakuntza-ibilbideak etengabe eguneratzen direla bermatzeko.**

**2.5.- Komunikazio- eta dibulgazio-kanpainak sortzea, eraikuntzaren industrializazioaren abantailak ezagutarazteko. Horretarako, talentua sektorerara eta sektorerara erakarriko da, eta talentua gaitzeko jarduerak izango dira kanpaina horien funtsezko elementuak.** Sektoreari eta haren irteera profesionali buruzko informazioa sartzeko hezkuntza- eta lanbide-orientazioko zerbitzuetan.

**2.6.- Euskal Autonomia Erkidegoko Eraikuntzaren Lan Fundazioa, prestakuntza-zentroak, enpresak eta haien elkarteak, BUILD: INN - Euskal Autonomia Erkidegoko Eraikuntzaren Klusterra eta Eusko Jaurlaritzaren bera integratuko dituzten lankidetzaren esparru eraginkorrak txertatzea, prestakuntza sektorearen lehiakortasun-bektore bihurtzeko.**

### **3. Berrikuntza eta ziurtagiriaren sustatzea eraikuntza-sektore industrializatuagoa eta iraunkorragoa bultzatzeko palanka estrategiko gisa.**

Bide horrek berrikuntzaren eta ziurtagiriaren aldeko apustu sendoa eskatzen du, elementu estrategiko gisa.

Berrikuntzak aukera ematen du teknologia berriak, ekoizpen-prozesuak eta ekoizpen-jardueraren eraginkortasuna eta efizientzia hobetzen duten irtenbideak sartzeko. Era berean, jauzi horrek ingurumen-aztarnan eragiten du, murriztu egiten da eta sektore iraunkorragoa lortzen da.

Aldi berean, ziurtagiriaren funtsezko tresna izan behar du prozesuen eta produktuen kalitatea eta estandarizazioa bermatzeko. Industrializazio-maila neurtzen duen ziurtagiri-sistema bat izateak kontratazio publikoan zein inbertsio pribatuan erabakiak hartzea erraztuko luke. Irizpide objektiboak eta homologatuak eskaintzean, industrializazioa kalitate-estandarrekin lotzea ahalbidetzen du, azken produktuari balio erantsia emanaz eta sektorea berrikuntzaren erreferente gisa kokatuz, bai estatuan, bai nazioartean.

Eredu honek materialen erabilera optimizatzea, hondakinak murriztea, eraginkortasun energetikoa hobetzea eta eraikinen biziklo osoan zehar emisioak minimizatzea ahalbidetzen du. Horregatik, edozein aurrerapenek ingurumen-irizpideak jaso behar ditu lehentasunez, sektorearen hazkundera haren ingurumen-jasangarritasunera bideratuta dagoela bermatuz.

#### **3.1.- I+G+Bri laguntzeari dagokionez, honako elementu hauek sartu beharko dira:**

3.1.1.- Enpresei lehendik dauden programetarako eta Euskadi 2030 Industria Plana aplikatzearen ondorioz abian jartzen diren laguntza-lerro berrietarako sarbidea erraztea.

3.1.2.- Sektorerako ad-hoc pizgarri berriak abian jartzea, programa orokorrak iristen ez diren lekuetan, zerga-arintzeak ezartzea barne.

3.1.3.- Living labs eta test beds garatzea lankidetzaren publiko-pribatuaren bidez kudeatutako espazioetan.

3.1.4.- I+G+B arloko lankidetzaren proiektuen garapena sustatzea, BUILD: INN – Euskal Autonomia Erkidegoko Eraikuntzaren Klusterra bezalako erakundeak koordinatuz.

#### **3.2.- Produktu berritzaile eta bereizgarriak jasangarritasunean ere erreferente izan daitezkeen apustu egitea, bai produktuei dagokienez, bai horiei lotutako produkzio- eta logistika-prozesuei dagokienez. Horretarako, honako hauetan lagundu beharko zaie enpresei:**

3.2.1. Ingurumen-kudeaketako sistemen ezarpena eta produktuaren ingurumen-adierazpenak eta -ziurtagiriak sustatzea.

3.2.2.- Dirulaguntzak, desgrabazioak eta finantzaketa iraunkortasun-irizpideekin lotzea. Prozesuen eta sistemen iraunkortasuna handitzera bideratutako inbertsioak saritzea eta laguntzea.

3.2.3.- Lizitazio publikoetan iraunkortasunaren eta zirkulartasunaren baldintzak indartzea.

3.2.4.- Sistema industrializatuko unitate bakoitzeko iraunkortasun-adierazleen inguruko erreferentzia-atalaseak aztertzea eta ezartzea, eta horiek eraikuntza tradizionalarekin alderatuta hobetzea.

#### **3.3.- Euskadi nortasun-ikurra duen eraikuntza-marka/label industrializatua bultzatzea, produktuen kalitatea ikusarazteko eta Estatuko eta nazioarteko merkatuan kokatzeko. Marka/label horren garapenean honako hauek sartu beharko dira:**

3.3.1.- Webgune publiko batean soluzio, proiektu eta obra industrializatuen gordailu bat sortzea, bikaintasun teknikoaren, ingurumen-bikaintasunaren eta gizarte-inpaktuaren atalase jakin batzuk gaitzeko.

---

3.3.2.- Euskal enpresek estatuko eta nazioarteko azoka, ekitaldi eta misioetan parte har dezaten laguntzea.

**3.4.- Eraikuntza Industrializatuko Hub bat garatzea, agente zientifiko-teknologikoak (zentro teknologikoak, unibertsitateak eta Lanbide Heziketako zentroak), klusterrak, elkarte profesionalak eta enpresak bilduko dituen, lankidetzak eta ezagutza-trukea sustatzeko gune gisa.**

**3.5. Ziurtagiri ofizialeko sistema propio arin eta malgua lehenbailehen martxan jartzea, eraikuntza industrializatuko euskal sektorea bultzatzeko.**

Ziurtagiri hori egiteak bultzada positiboa emango lioke sektorea merkatuan garatzeari, eta sustapenen arteko konparazio objektiboa erraztuko luke, kalitatea, iraunkortasuna eta berrikuntza industrializazioarekin lotuz. Gainera, tresna horrek sustatzaileen eta bezeroen erabakiak babesteko aukera emango luke, irizpide homologatu eta ulergarrien bidez, sustapenen balio erantsia indartuz, balio-kateari segurtasuna emanez eta kostuak eta epeak murriztuz, egikaritzaren kontrol eta espezializazio handiagoari esker. Ziurtagiri hori lotu liteke gutxieneko industrializazio-maila ziurtatzen duten proiektuei abantailak lortzearekin (hobari fiskalak, lizitazioetako baldintzak edo hirigintza-abantailak).

Era berean, ziurtagiri hori diseinatu beharko da etorkizunean Estatuan eta/edo European sortzen diren beste ziurtagiri batzuekin integratzeko.

**3.6.- Eraikuntza industrializaturako bideratutako oinarri teknologikoko enpresa berriak garatzen laguntzea. I+G+B proiektuen ondorioz, egoitza Euskadin duten enpresa teknologiko berrien sorrera eta finantzaketa erraztu eta lagunduko da, produktu berrien, IKT soluzioen, BIM aplikazioen, prozesu industrialen hobekuntzaren eta abarren esparruan, Eraikuntza Industrializatuaren sektorerako jauzi kualitatiboa egin ahal izateko.**

Adostutako gomendio horiez gain (adostasuntzat hartuta lantaldeko kideen gutxienez bi herenen babesa izatea), eragile eta pertsona parte-hartzaileek hainbat iritzi partikular eman dituzte, 3. eranskinean agertzen direnak.

## 1 Eranskina: LAN TALDEAREN KIDEAK

| <b>ERAGILEA</b>  | <b>ORDEZKARIA</b>  |
|--|--|
| Etxebizitza eta Hiri Agenda Saila – Eusko Jaurlaritzza | Miguel de los Toyos<br>Pablo García Astrain<br>Francisco José Arratibel Suquia |
| SPRI   | Jon Ansoleaga  |
| BUILD: INN   | Marta Epelde<br>Iñaki Aurrekoetxea   |
| INGETEAM   | Alex Belasutegui   |
| TECNALIA   | Iñigo Vegas<br>Jesús Isoird<br>Izaskun Martínez<br>Jose Luis Elejalde          |
| MONDRAGON UNIBERTSITATEA                               | Susana Azpilikueta Gurrutxaga  |
| EHU ARKITEKTURA GOI ESKOLA TEKNIKOA                    | Jon Begiristain Mitxelena  |
| EKONOMISTAK  | Joseba Cedrun Ibarra   |
| CONFEBASK  | Amaia López Iriondo  |
| ASCOBI-BIEBA   | Iñaki Urresti Laka   |
| ASCONGI  | Txema Muñoz Etxezarraga<br>Jose Luis González                                  |
| SEA-UNECA  | Luis Alba Jimenez  |
| GRUPO EIBAR  | Jon Redondo  |
| AMICYF   | Iñaki Salcedo Ausin  |
| ALOKABIDE  | Patricia Val Hevia<br>Aitor Pradovaso Cañas                                    |
| VISESA   | Carlos Quindós<br>Nerea Morgado Juez<br>Alejandro Santamaria Sillaurren        |
| AVS EUSKADI  | Rafa Farias  |
| UGT EUSKADI  | Raúl Arza Vélez  |
| FUNDACIÓN LABORAL DE LA CONSTRUCCIÓN                   | Susana Federío Arostegui   |
| KUTXABANK  | Jon Azurza Larrañaga<br>Juan Gabriel Soto Sánchez                              |
| LABORAL  | Ibon Urgoiti   |
| TRIODOS  | Tamara Lemos   |
| MUGA   | Javier Etxabe  |
| ARENHOS ADVISORS                                       | Alejandra Mora Gallego   |
| SABADELL   | Jorge Delgado Esteban  |
| ABANCA   | Jesús Suarez Garrido   |
| SANTANDER  | Miguel López Valverde  |
| CAIXABANK  | Begoña Ortuzar Azpillaga   |
| CAJA RURAL DE NAVARRA                                  | Alain Sánchez Amores   |
| IBERCAJA   | Armando Villaverde Calvo   |
| Q-LIVING   | Rosa María Gallego Morales   |
| COAVN  | Jose María González Pinto  |
| EGK Consejo Vasco de la Juventud                       | Iratxe Uriarte   |

|   |  |
|---|--|
| LABORATORIO DEL CONTROL DE CALIDAD DEL PAÍS VASCO | Lourdes González Garrido   |
| Colegio de Ingenieros de Caminos                  | Amaia Garay Palacio<br>Pedro Rivas Apraiz<br>Jose Manuel Baraibar Diez                           |
| Viceconsejería de Formación Profesional           | Jon Mirenal Labaka   |
| Viceconsejería de empleo e inclusión              | Alfonso Gurpegui   |
| Escuela de Ingeniería UPV EHU                     | Jesús Cuadrado Rojo<br>Ignacio Marcos Rodríguez<br>Eduardo Rojí Chandro<br>Iker Laskurain Iturbe |
| INDUSHOUSE  | Enrique Nieto Márquez  |
| CIFP CONSTRUCCIÓN LHII – ERAIKEN                  | Miren Gizane Arteta Barrenechea<br>Naiara Buruaga Linazaga                                       |
| ENERBLOCK   | Luis Fernández   |
| PRECOM – Prefabricados y Construcciones Modulares | Fernando Larraza Gaminde   |
| PUERTOS DE EUSKADI                                | Pedro Rivas Apraiz   |
| TKNIKA  | Gorka Gaztelumendi Garaioikoetxea  |
| IHOBE   | Jose María Fernández Alcala  |
| ALKORA EBS – Correduría de Seguros S.A.U          | Ibon Gangoiti Laredo   |
| GOIERRI VALLEY                                    | Jorge Cuevas   |
| EVE – Ente Vasco de la Energía                    | Javier Marques González<br>Sagrario Eneriz Pérez   |
| CIDARK SYSTEM S.L.                                | Diego García Pando   |
| CONSTRUCCIONES AMENABAR                           | Jose Luis González Pardo   |
| GARNICA PLYWOOD                                   | Ugutx Arrizabalaga Mendiguren  |
| EAGI Eraikuntza Eskola LHII                       | Ion Askasibar  |
| EGOIN   | Unai Gorroño   |
| Colegio de Ingenieros Industriales                | Jose María Villate<br>Javier Urreta Ormaetxea  |
| ENERBLOCK   | Luis Fernández   |
| CIFP Construcción Bizkaia                         | Andere Payo<br>Irene Delgado   |
| AK MODULAR  | Txema Martín   |
| ARTAZA ECOEFICIENTE                               | David Blázquez Sánchez   |
| MADERGIA  | Diego Nuñez  |
| VIGUETAS NAVARRAS                                 | David Ilundain   |
| GRUPO CORPORACIÓN MONDRAGON                       | Ramón Gómez Ugalde   |

---

## **2. Eranskina: OSPATUTAKO SESIOAK**

- 1. Irekiera Saioa. Maiatzaren 9a, ostirala 09:00etatik 11:00etara. Presentziala (Areto Nagusia, Bizkaiko Eusko Jaurlearitzaren ordezkaritza, Gran Vía de Don Diego López de Haro, 85, 48009, Bilbao).
- 2. Saioa. Maiatzaren 29a, osteguna, 10:00etatik 12:00etara. Online (Microsoft Teams bidez).
- 3. Saioa, Ekainaren 12a, osteguna, 10:00etatik 12:00etara. Online (Microsoft Teams bidez).
- 4. Saioa, Ekainaren 19a, osteguna, 10:00etatik 12:00etara. Presentziala (Areto Nagusia, SPRI egoitza, Plaza Bizkaia Eraikina, Alameda Urquijo kalea, 36, 48011 (Bilbao)).
- 5. Saioa. Uztailaren 11, ostirala, 12:00etatik 14:00etara. Online (Microsoft Teams bidez).

## **3. Eranskina: ERAKUNDE ETA PERTSONEN IRITZI PARTIKULARRAK**